KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA, ORIOKO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ETA EKIPAMENDUA HORNITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO	PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SERVICIO DE REGULACIÓN DE APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS EN EL MUNICIPIO DE ORIO Y SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO
I. XEDAPEN OROKORRAK	**I. DISPOSICIONES GENERALES**
1.- KONTRATUAREN XEDEA	**1.- OBJETO DEL CONTRATO**
Agiri honen arabera egingo den kontratuaren helburua da Orioko udalerrian ibilgailuen aparkamendua arautzeko eta ekipamendua hornitzeko zerbitzua ematea, plegu teknikoetan deskribatzen diren lekuetan eta ezaugarriekin. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorriz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du. CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona: 63712700-0, 63712710-3	El contrato que en base al presente pliego se realice, tendrá por objeto el Servicio de Regulación de aparcamiento de vehículos en el municipio de Orio y el suministro del equipamiento, en los lugares y con las características que se describen, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual. Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 63712700-0, 63712710-3
2.- ARAUBIDE JURIDIKOA	**2.- RÉGIMEN JURÍDICO**
Kontratazioak zerbitzu- eta hornidura-prestazioak barne hartzen ditu, eta, beraz, kontratu misto baten aurrean gaudela esatea ahalbidetuko luke, nahiz eta aplikatzen den araubidea **zerbitzu-kontratu** batena izan; nolanahi ere, kontratua gauzatzean hornidura-kontratuen berariazko erregulazioari buruzko zehaztapenak aplikatu ahal izango dira –parkimetroei eta mantentze-lanei dagokienez–. Hori guztia, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lege horren, 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren, indarrean jarraitzen duen bitartean, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko	La contratación incluye prestaciones de servicios y suministro, por lo que permitiría afirmar que estamos ante un contrato mixto, si bien el régimen que se aplica es el de un **contrato de servicios**; sin perjuicio, de que podrán resultar de aplicación en su ejecución determinaciones relativas a la regulación específica de los contratos de suministro -en lo referente a los parquímetros y su mantenimiento-. Todo ello, de conformidad con lo establecido en el artículo 18 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP), quedando sometida a dicha Ley, así como al Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, en tanto continúe vigente, y al Real Decreto 817/2009 , de 8 de mayo, por el que se

urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren, edo horiek ordezten dituzten erregelamendu-arauen (aurrerantzean, SPKL garatzeko araudia) eta administrazio-klausula partikularren agiri honetan jasotako klausulen mende. Prozedura ireki sinplifikatuaren bidez kontratua esleitzeko espediente arrunta izapidetzen da, SPKLren 159. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zenbatekoa kontuan hartuta, **kontratua erregulazio harmonizatuaren mende dago**, SPKLren 19. eta 22. artikuluen arabera.	desarrolla parcialmente la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, o a las normas reglamentarias que los sustituyan (en adelante normativa de desarrollo de la LCSP), y a las cláusulas contenidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares Se tramita expediente ordinario para la adjudicación del contrato mediante procedimiento abierto simplificado, según lo dispuesto en el artículo 159, de la LCSP. Teniendo en cuenta su importe, **el contrato se encuentra sujeto a regulación armonizada**, de conformidad con los artículos 19 y 22 de la LCSP.
3.- KONTRATAZIO-ORGANOA	**3.- ÓRGANO DE CONTRATACIÓN**
SPKLren 2. xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio hau egiteko eskumena udalaren **Alkatetzari** dagokio. Organo horrek dagokion administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du, eta, ondorioz, honako prerrogatiba hauek ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betearazteak sortzen dituen zalantzak argitzea, kontratua aldatzea eta kontratua suntsiaraztea, aplikatzekoa den araudiari jarraiki. Horri buruz ematen dituen erabakiak betearazleak izango dira, enpresa esleipendunak eskumeneko jurisdikzioan aurkaratzeko duen eskubideari kalterik egin gabe.	Por razón de lo dispuesto en la Disposición Adicional 2ª la LCSP, la competencia para la presente contratación corresponde a **Alcaldía**. El mencionado órgano tiene facultad para adjudicar el correspondiente contrato administrativo y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su ejecución, modificarlo y acordar su resolución, con sujeción a la normativa aplicable. Los acuerdos que a este respecto dicte serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho de la empresa adjudicataria a su impugnación ante la jurisdicción competente.
4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA	**4.- CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR**
Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, ekonomia-, finantza- eta teknika- edo lanbide-kaudimena egiaztatzen dutenek eta SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta ez daudenek.	Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan ahalko dira soil-soilik beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioen kasuan, eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar adina elementu pertsonal eta material dituen antolaketa bat izan beharko dute. Era berean, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako nahikoa ahalorde emanda. Pertsona juridiko baten ordezkaritzan bertako kideren bat dagoenean, horretarako ahalmena duela justifikatu beharko du agiri bidez. Kasu batean zein bestean, ordezkariari aipatutako kontratatzeko ezintasunaren kausek eragiten diote. Prozedura izapidetzen ari den bitartean, eta esleipena egin aurretik, enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa azkentzen bada bat-egitearen, zatiketaren edo enpresa-ondarea eskualdatzearen ondorioz, sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo ondarearen eskuratzailea izango da haren oinordekoa prozeduran, baldin eta kontratatzeko gaitasun-baldintzak betetzen baditu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena agiri honetan esleipen-prozeduran parte hartzeko eskatzen diren baldintzetan egiaztatzen badu. Horren ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, Administrazio Klausula Berezien Agirian (AKPP), Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian (PPTP) eta gainerako kontratu-dokumentazioan xedatutakoa beteko da. Honako dokumentu hauek kontratu-izaera izango dute: a) AKPP eta haren eranskinak.	Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, y deberán disponer de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la adjudicación se produce la extinción de la personalidad jurídica de la empresa licitadora por fusión, escisión o por la transmisión de su patrimonio empresarial, le sucederá en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibiciones de contratar y acredite la clasificación y/o solvencia en las condiciones exigidas en este Pliego para participar en el procedimiento de adjudicación. En cuanto a sus efectos, cumplimiento y extinción se atenderá a lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP), en el Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares (PPTP) y en la restante documentación contractual. Tendrán carácter contractual los documentos siguientes: a) El PCAP y sus anexos.

b) PPTP eta haren eranskinak. c) Kontratua formalizatzeko agiria. d) Esleipendunak aurkeztutako eskaintza. Agiri horiek sinatu beharko dira kontratua formalizatzen den unean ados daudela adierazteko. Terminoetan kontraesanen bat izanez gero, aipatutako dokumentuak interpretatzeko, klausula honetan zerrendatzen diren lehentasun-hurrenkera hartuko da kontuan, eta, horrela, dokumentu bakoitzak lehentasuna izango du atzetik datozenekiko. Kontratua, administrazio-klausula zehatzen plegua, administrazio-klausula zehatzen plegua, eranskinak eta arestian adierazitako gainerako kontratu-dokumentuak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko esleipenduna horiek betetzeko betebeharretik. Kontratuak bi prestazio ditu: P1 prestazioa: Orioko udalerrian ibilgailuen aparkalekua arautzeko zerbitzua eta ekipoen mantentze-zerbitzua. P2 prestazioa: aparkalekua kontrolatzeko ekipoen hornidura.	b) El PPTP y sus Anexos. c) El documento de formalización del contrato. d) La oferta presentada por el adjudicatario. Estos documentos deberán ser firmados en prueba de conformidad en el momento de la formalización del contrato. En el supuesto de existencia de alguna contradicción en sus términos, los documentos relacionados se interpretarán tomando en consideración el orden de prelación por el que se enumeran en esta cláusula, de forma que cada uno de ellos tiene preferencia respecto de los que le sigan en orden. El desconocimiento del contrato, del PCAP, del PPTP, de sus documentos anexos y del resto de documentos contractuales indicados anteriormente no eximirá al adjudicatario de la obligación de su cumplimiento. El contrato tiene dos prestaciones: Prestación P1: Servicio de Regulación de aparcamiento de vehículos en el municipio de Orio y servicio de mantenimiento de equipos. Prestación P2: Suministro de equipos para control del aparcamiento.
5.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA BURUTZEKO EPEA	**5.- DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCION**
5.1. Kontratua burutzeko epea Bi urtekoa izango da eta urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu. **5.2. Kontratuaren iraupen osoa**	**5.1. El plazo de ejecución del contrato** Será de dos años y podrá tener dos prórrogas de un año cada una. **5.2. La duración total del contrato** La duración total del contrato será como

Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da gehienez, luzapenak barne (2+1+1) Luzapen hori kontratazio-organoak erabakiko du eta nahitaezkoa izango da enpresa adjudikaziodunarentzat, baldin eta kontratuaren iraunaldia bukatu baino hiru hilabete lehenago jakinarazi bazaio. Indarraldia eta luzapenak iragan eta gero, kontratua besterik gabe bukatuta geldituko da eta enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. **5.3.- Entregatzeko epea** Kontratua formalizatu eta gehienez ere hilabeteko epean, eta betiere ekainaren 1a baino lehen, adjudikaziodunak lehiaketa hau arautzen duten agirietan zehaztutako sistema jarri beharko du martxan. Epe horiek igaro ondoren kontratista berandutzan dagoela ulertuko da, eta Udalak ez du aldez aurretik ohartarazi beharrik izango. Epe horiek betetzen ez badira, kontratua suntsiarazi egingo da.	máximo de cuatro años incluidas las prórrogas (2+1+1) La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para la empresa adjudicataria, siempre que su preaviso se produzca al menos con tres meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato. Transcurrido el plazo de vigencia, y en su caso las prórrogas, quedará automáticamente terminado el contrato y la empresa adjudicataria cesará en la prestación del servicio. **5.3.- Plazo de entrega** En el plazo máximo de 1 mes a partir de la fecha de la formalización del contrato y siempre antes del 1 de junio, el adjudicatario deberá poner en funcionamiento el sistema especificado en los pliegos que rigen este concurso. El/la contratista se entenderá incurso/a en mora por el transcurso de los plazos citados, no siendo necesaria intimación previa por parte del Ayuntamiento. El incumplimiento de los plazos señalados será causa de resolución del contrato.
6.- KONTRATUAREN AURREKONTUA	**6. -PRESUPUESTO DEL CONTRATO**
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 268.350,55€ gehi %21eko BEZari dagozkion 56.353,61€-koa izango da, hau da, 324.704,16€. Lizitatzaileek aurrekontu hori hobetu dezakete. Honela xehakatzen da: Zuzeneko kostuak:218.592,21 Zeharkako kostuak: 21.006,50€ Onura industriala: 28.751,84€ Zerbitzuaren urteko kostea: 268.350,55€ (BEZ-ik gabe)	El presupuesto base de licitación será de 268.350,55€, más 56.353,61€, correspondientes al 21% IVA, es decir, 324.794,16€ presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores. El presupuesto se detalla: Costes directos: 218.592,21€ Costes indirectos:21.006,50€ Beneficio Industrial:28.751,84€ Coste anual del servicio:268.350,55€ (Sin IVA)

Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.073.402,18 €(BEZik gabe) Kontratuaren prezioak prezio unitarioen zerrenda bat izango du (zerbitzuaren orduko prezioa eta parkimetro-unitate bat), eta prezio horiek egongo dira indarrean kontratua gauzatzen den bitartean, zerbitzua edo hornidura handitu behar izanez gero. Prezio horiek aurkezten ez badira, lizitatzaileak Administrazioaren aurrekontuko prezio berak aurkeztu dituela ulertuko da, proposamen ekonomikoan jasotako baja-portzentaje berean.	Valor estimado del contrato: 1.073.402,18€ (sin IVA) El precio del contrato incluirá una relación de precios unitarios (precio hora del servicio y una unidad de parquímetro), que son los que regirán durante la ejecución del mismo en caso de que hiciera falta ampliar el servicio o suministro. Si tales precios no son presentados se entenderá que el licitador aporta los mismos del presupuesto de la Administración, afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.
7.- FINANTZABIDEAK	**7.- FINANCIACION**
Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. 1.0201.227.99.133.20.2025 partidan	Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso en la partida 1.0201.227.99.133.20.2025
8.- NOLA ORDAINDU	**8.- FORMA DE PAGO**
Egindako zerbitzuak eta hornidurak hilabeteko fakturaren bidez ordainduko da. Faktura horien kopurua kontratuaren prezio osoa 12 hiletan zatituta kalkulatuko da.	El pago de los servicios y suministros ejecutados se realizará mediante facturas mensuales proporcionales a la división del precio total del contrato en 12 mensualidades.
9.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA	**9.- REVISION DE PRECIOS**
Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea.	En el presente contrato no procederá la revisión de precios.
10.- BERMEAK	**10.- GARANTIAS**
Eskaintza ekonomiko onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, **10 egun balioduneko** epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5ekoa (BEZ gabe). Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori. Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da 2095/3176/89/1060001376 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korronte baten	La empresa licitadora que haya presentado la oferta más ventajosa deberá acreditar, en el plazo de **10 días hábiles** desde el día siguiente a aquél en que haya sido requerido para ello, la constitución de una garantía de un 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA. Las garantías podrán constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108.1 de la LCSP. En caso de constituirse en metálico, el importe de la garantía se ingresará en la cuenta corriente número 2095/3176/89/1060001376 de Kutxabank, entregando una copia del abonaré en la Tesorería junto a un número

zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko. Bermea osorik edo, halakorik bada, zati bat, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratuko obligazioak bete ondoren.	de cuenta corriente donde se desee que se ingrese la devolución de la garantía. La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la persona adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.
II.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA	**II.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO**
11.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA	**11.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu hau **prozedura irekiaren, izapidetze arruntaren eta hainbat esleipen-irizpideren arabera esleituko da**. Kontratuaren adjudikazioa egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:	La adjudicación del presente contrato se realizará por **procedimiento abierto, tramitación ordinaria y con varios criterios de adjudicación**. Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato, relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:
11.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK GEHIENEZ 55 PUNTU **<u>Eskaintza ekonomikoa:</u>** <u>Gehienez 50 puntu</u> Eskaintza onuragarriena: **50 puntu** Beste eskaintzak ondorengo formula aplikatuz baloratuko dira: P. mAx (Puntuazio maximoa) = 50 puntu P1= P max x (Eskaintza hoberena/ lizitatzailearen eskaintza) Gehieneko puntuazioa (50 puntu) emango zaio eskaintza ekonomikorik onuragarrienari. **Azterketa ekonomiko osoa aurkeztu beharko da aurkeztutako eskaintza ekonomikoa justifikatzeko.**	**11.1. CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULA: PUNTUACIÓN MÁXIMA DE 55 PUNTOS** **<u>Oferta económica</u>**<u>: máximo 50 puntos</u> Oferta más ventajosa: **50 puntos** El resto de ofertas se valorarán aplicando la siguiente fórmula: P. máx (Puntuación máxima)= 50 puntos P1= P maxima x (oferta más ventajosa/oferta de licitador) Se otorgará la máxima puntuación (50 puntos) a la oferta económica más ventajosa. **Se deberá presentar un estudio económico completo para justificar la oferta económica presentada.**

Eskaintzak neurriz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz: — Lizitatzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu. — Bi lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu. — Hiru lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurriz kanpokotzat joko da. — Lau lizitatzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatuko da, adierazitako azken kasu horretan sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru eskaintzekin kalkulatuko da. Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago, lizitatzaile horiei 5 egun balioduneko epe bat emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan exekutatu ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat	Para la valoración de las ofertas como desproporcionadas o con valores anormales, según lo dispuesto en el art. 85 del Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, se analizará si la empresa licitadora incurre en alguno de los siguientes supuestos: — Cuando, concurriendo un solo licitador/a, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales. — Cuando concurran dos licitadores/as, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta. — Cuando concurran tres licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales. — Cuando concurran cuatro o más licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media sólo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía. Cuando alguna de las ofertas esté incursa en presunción de anormalidad, se concederá a las empresas licitadoras afectadas un plazo de 5 días hábiles para que puedan presentar una justificación adecuada de las circunstancias que les permiten ejecutar dicha oferta en esas condiciones, con los criterios que se señalan al respecto en el artículo 149.4 de la LCSP.

aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin. <u>Berdintasunaren arloko prestakuntza (gehienez 5 puntu):</u> Kontratua gauzatzen duten langile guztiei berdintasunaren arloko prestakuntzako 5 ordu gutxienez urtean emateko konpromisoari 5 puntu emango zaizkio. Irizpide hau betetzen dela egiaztatzeko, gehienez ere urtearen amaieran eta kontratuaren arduradunak emandako jarraibideen arabera, esleipendunak aurkeztu beharko ditu: formakuntza eman duen enpresak edo prestatzaileak egindako ziurtagiria (k), prestatzailearen beraren titulazioa adieraziz, formakuntzaren edukiak, iraupena eta bertaratutakoen izenen zerrenda. Prestakuntzaren edukia, besteak beste, honako gai hauekin lotuta egongo da: hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa, indarkeriarik gabeko komunikazioa edo berdintasunarekin zerikusia duten gai orokorrak, eta herritarrekiko zerbitzuaren hobekuntzan eragina izango dutenak; betiere, kontratuaren arduradunaren eta enpresa kontratistaren artean definituko diren gaiak izango dira.	<u>Formación en materia de igualdad (máximo 5 puntos)</u>: Se valorará con 5 puntos el compromiso de impartir al menos 5 horas anuales de formación en materia de igualdad a la totalidad de la plantilla que ejecuta el contrato. A efectos de verificar el cumplimiento de este criterio en la ejecución del contrato, se presentará, a la finalización del año como máximo y de conformidad con las instrucciones emitidas por el/la responsable del contrato, el/los certificado/s expedido/s por la empresa o persona formadora, indicativo/s de titulación de la propia formadora, así como contenidos, duración y relación nominal de personas asistentes, a los cursos que evidencien dicha formación. El contenido de la formación estará relacionado, entre otras, con las siguientes materias: el lenguaje no sexista e inclusivo, la comunicación no violenta o temáticas generales relacionadas con la igualdad y temas concordantes que incidan en la mejora del servicio en relación con la ciudadanía, y que se definirá entre el/la responsable del contrato y la empresa contratista.
11.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 45 PUNTU	**11.2 CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS: PUNTUACIÓN MÁXIMA 45 PUNTOS**
SPKL 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan, enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideen multzoan. Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko 22,5 puntutara iristen ez diren eskaintzak.	Conforme al artículo 146.3 de la LCSP, para ser admitidos a la valoración global, se exigirá que, en los criterios no cuantificables mediante fórmulas, las empresas licitadoras alcancen un umbral mínimo del 50% de la puntuación en el conjunto de los criterios sometidos a un juicio de valor y no evaluables mediante fórmulas, de forma que no sean tenidas en cuenta por la Mesa de Contratación las

1. Zerbitzua ezartzeko Proiektu teknikoa; plegu teknikoen 20. artikuluak jasotako irizpideen arabera (30 puntu). 2. Giza baliabideen plana; plegu teknikoen 20. artikuluak jasotako irizpideen arabera (5 puntu). 3. Hobetzeko proposamenak (10 puntu). Baldintza-orrietan ezarritako gutxieneko baldintzekin loturiko hobekuntzak. Hobetzeko proposamen hauek Udalak balioetsi eta onartu egingo ditu –ala ez–, baina ez dute inola ere Udalarentzat kostu gehigarririk eragingo. Atal horren garapenak DIN A4 formatuko 20 orri hartuko ditu gehienez. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak. Ez dira kontuan izango, bestalde, behar bezala zehaztuta ez dauden eskaintzak, eta ezta beste lotura batzuengana jotzeko egiten diren aipamenak ere	ofertas cuya puntuación no alcance lo siguiente: 22,5 puntos. 1. Proyecto técnico para la implantación del servicio; según criterios del artículo 20 del pliego técnico (30 puntos). 2. Plan de recursos humanos; según criterios del artículo 20 del pliego técnico (5 puntos). 3. Propuestas de mejoras (10 puntos). Mejoras respecto a las condiciones mínimas establecidas en el pliego. Estas propuestas de mejora estarán valoradas y podrán ser aceptadas o no por el Ayuntamiento, pero en ningún caso supondrán un coste adicional al Ayuntamiento. El desarrollo de estos apartados abarcará como máximo 20 folios de formato DIN A4. No se contabilizarán las portadas ni los índices que faciliten la comprensión de la oferta. No se tendrán en cuenta las propuestas que no vengan lo suficientemente detalladas y remitan, para más detalle o información, a otros soportes.
12. ESKAINTZEN AURKEZPENA	**12. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**
Lizitazio hau udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman. Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera / **30 egun naturaleko epean**, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aipatutako epearen azken eguneko 14:00ak arte. Udal honetako kontratatzailearen profila honako helbide honetan eskuratu ahal	La presente licitación será anunciada en el perfil de contratante de este Ayuntamiento, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. Las proposiciones deberán presentarse electrónicamente a través de la citada Plataforma, https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/ durante el **plazo de 30 días naturales**, contado a partir del siguiente a aquel en que aparezca el referido anuncio, hasta las 14:00 horas del último día del plazo señalado.

izango da: www.orio.eus Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira pleguak eta dokumentazio osagarria. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da. Proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita aurkeztu beharko dira. Lizitatzaileek eskatzen dituzten baldintza-agiriei edo agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei egun lehenago emango da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago egin bada. Informazio hori emateko, lizitatzaileek helbide honetara jo dezakete: **KONTRATAZIO UNITATEA** Orioko Udala Herriko Plaza, 1 Bulego teknikoa bulteknikoa@orio.eus tel.: 943-830346 Kontratatzailearen profila: http://www.orio.eus SPKLren 136.2 eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada eman adierazitako epeetan, edo eskaintzak tokian bertan bisita egin ondoren edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu ondoren bakarrik egin badaitezke, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, kasuan kasuko hautagaiek eskaintzak egiteko behar den informazio guztiaren berri izan dezaten.	El acceso al perfil de contratante de este Ayuntamiento se podrá llevar a cabo a través de la siguiente dirección: www.orio.eus. En este mismo lugar se podrá tener acceso a los pliegos y a la documentación complementaria. En el supuesto de que el último día del plazo coincidiera en sábado, domingo o festivo, se trasladará al día siguiente hábil. Las proposiciones deberán presentarse redactadas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten las licitadoras será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos 12 días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente. Para dicha información, las licitadoras se podrán dirigir a: **UNIDAD DE CONTRATACIÓN** Orioko Udala Herriko Plaza, 1 Bulego teknikoa bulteknikoa@orio.eus telf.: 943-830346 Kontratatzailearen profila: http://www.orio.eus De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 136.2 y 3 de la LCSP, cuando la información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria no haya podido ser facilitada en los plazos indicados, así como cuando las ofertas solamente puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta “in situ” de la documentación

Lizitazio-prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako bitarteko elektronikoen bidez aurkezten ez den eskaintzarik. Horretarako, ezinbestekoa da Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformaren erabiltzaile erregistratua izatea. Eskaintza bateko edozein dokumentu ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak fitxategi okerrean sartutako dokumentua formatu digitalean aurkezteko aukera izango du, egoera hori jakinarazi eta gehienez ere 24 orduko epean. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezin izango du inolako aldaketarik izan eskaintzan jatorrizko dokumentuari dagokionez. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko. Proposamenak administrazio-klausula zehatzen agiri honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak klausula edo baldintza horiek baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko. Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzeari kalterik egin gabe. Era berean, ezin izango du proposamenik sinatu aldi baterako enpresa-elkartean, banaka egin badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak	adjunta al pliego, el plazo para la recepción de ofertas se prorrogará el tiempo que se considere conveniente para que los candidatos afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para formular las ofertas. En el presente procedimiento de licitación no se admitirán ofertas que no sean presentadas a través de los medios electrónicos descritos. A estos efectos, es requisito necesario ser usuario registrado de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi o de la Plataforma de Contratación del Sector Público. En el caso de que cualquiera de los documentos de una oferta no pueda visualizarse correctamente, se permitirá que, en un plazo máximo de 24 horas desde que se le notifique dicha circunstancia, la licitadora presente en formato digital, el documento incluido en el fichero erróneo. El documento presentado posteriormente no podrá sufrir ninguna modificación respecto al original incluido en la oferta. Si el órgano de contratación comprueba que el documento ha sufrido modificaciones, la oferta de la licitadora no será tenida en cuenta. Las proposiciones deberán ajustarse a lo previsto en este pliego de cláusulas administrativas particulares, y su presentación supone, por parte dla licitadora, la aceptación incondicionada de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad ni reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos obrantes en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi o en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público. Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de la

sinatutako proposamen guztiak ez dira onartuko. Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eman beharreko informazioari buruz SPKLk emandako xedapenetan xedatutakoari kalterik egin gabe, lizitatzaileek isilpeko izendatu ahal izango dute haiek eskaintzak egitean emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta horien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe. Enpresa lizitatzaileek **hiru artxibo elektroniko** aurkeztuko dituzte (A, B eta C). Artxibo bakoitzean azalduko dira enpresaren izena, sinatzailearen izen-abizenak eta ordezkaritza, eta sinatuta egongo dira. Artxiboak inskripzio hau azalduko du bistan: «ORIOKO UDALERRIAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ETA EKIPAMENDUA HORNITZEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAN KONTRATATZEKO PROPOSAMENA»	admisión de variantes. Tampoco podrá suscribir propuesta alguna en unión temporal de empresas si lo ha hecho individualmente, ni figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las proposiciones suscritas por la licitadora. Sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación vigente en materia de acceso a la información pública y de las disposiciones de la LCSP relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que debe darse a los candidatos y a las licitadoras, éstos y éstas podrán designar, como confidencial, parte de la información facilitada por ellos al formular las ofertas, en especial con respecto a los secretos técnicos o comerciales y a los aspectos confidenciales de las mismas. El Ayuntamiento no podrá divulgar esta información sin consentimiento de la respectiva licitadora. Las empresas licitadoras deberán presentar **tres archivos electrónicos** (A, B y C). En cada archivo se indicará la denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace y se señalará lo siguiente: "PROPOSICION PARA TOMAR PARTE EN CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE DEL SERVICIO DE REGULACIÓN DE APARCAMIENTO DE VEHÍCULOS EN EL MUNICIPIO DE ORIO Y SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO"
"A" artxiboaren azpititulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" eta agiri hauek izango ditu:	**El archivo "A"** se subtitulará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá:
a) Kontrataziorako Europar Dokumentu Bakarra (DEUC) DEUCen formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web orri honetan:	a) El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en la siguiente dirección web:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es	https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es
b) Desgaitasun kuotak eta berdintasun plana betetzeko erantzukizunpeko adierazpena. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute bere langileek %2a gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izateko. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute berdintasun plana edukitzeko eta hura dagokion lan-erregistroan inskribatua izateko. Eskaintza modu independentean prestatu izanaren adierazpena ere erantsi da. **(II. Eranskina)**.	b) Declaración responsable para el cumplimiento de las cuotas de discapacidad y el plan de igualdad. Las empresas de 50 o más trabajadores deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleados sean trabajadores con discapacidad. Las empresas de 50 o más trabajadores, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad inscrito en el registro laboral correspondiente. Se incluye también una declaración de haber preparado la oferta de manera independiente **(Anexo II)**.
c) Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **III Eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.	c) Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios, en su caso. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 LCSP y 24 RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su DEUC. En el **Anexo III** de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios.
d) Pleguetan adierazten diren zehaztapenen araberako bitartekoak kontratua gauzatzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena.	d) Declaración responsable de adscripción a la ejecución del contrato de los medios personales y materiales que se indican

Baldintza-agiri honetako **IV. eranskinean** jasotzen da eredua.	en los pliegos. Se incorpora modelo en el **Anexo IV** al presente pliego.
e) Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.	e) Especialidades en la documentación que han de presentar las licitadoras extranjeras. Las licitadoras extranjeras deberán presentar, además de la declaración responsable a que se refiere la letra a) anterior, la documentación específica que a continuación se detalla.
- Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua).	- Declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales Españoles de cualquier orden para todas las incidencias que, de modo directo o indirecto, pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora (art.140.1 f) de la LCSP).
- Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte: • Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena, eta bertan jasota gelditzuko da, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohikotasunez aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan. • Elkarrekikotasun txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio armonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia	- Las empresas de Estados que no sean miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Único Europeo deberán aportar, además: • Informe expedido por la Misión Diplomática Permanente u Oficina Consular de España del lugar del domicilio de la empresa, en el que se haga constar, previa acreditación por la empresa, que figura inscrita en el registro local profesional, comercial o análogo o, en su defecto que actúa con habitualidad en el tráfico local en el ámbito de las actividades a las que se extiende el objeto del contrato. • Informe de reciprocidad, al que se refiere el artículo 68 de la LCSP, salvo que se trate de contratos sujetos a regulación armonizada, en cuyo caso se sustituirá por un informe de la Misión Diplomática

Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa. Esleipendun enpresa, kasu horretan, Espainian ireki beharko du sukurtsala, eta ordezkariak eta boteredunak izendatu beraien operazioetarako, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.	Permanente o de la Secretaría General de Comercio Exterior del Ministerio de Economía sobre la condición de Estado signatario del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio. La empresa adjudicataria, en este caso, deberá abrir sucursal en España con designación de apoderados y representantes para sus operaciones, y deberán inscribirse en el Registro Mercantil.
Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazi duten baldintzei buruz.	El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que las licitadoras hubieran declarado responsablemente su cumplimiento.
Lizitatzaileak dokumentazioa aurkeztu beharko du epe egoki batean; dena dela, epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala betetzen aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.	La licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo suficiente que no podrá ser superior a 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.
"B" artxiboren azpititulua hau izango da: **"ESKAINTZA TEKNIKOA"**. Hona hemen "B" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak. Plegu hauetan adierazitako adjudikazio-irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak. Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-	**El archivo "B"** se subtitulará **"OFERTA TÉCNICA"** y contendrá los siguientes documentos: documentos que acrediten el cumplimiento de los criterios de adjudicación, señalados en la cláusula 11.2 de este pliego. Se incluirá toda la documentación que la empresa licitadora considere necesaria para valorar los distintos aspectos de la oferta según los criterios de adjudicación citados en este pliego. En ningún caso deben incluirse en el presente archivo la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de

irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein "B" artxiboan sartuz gero, eskaintza kanporatu egingo da, prozesuaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna jokoan jartzean.	adjudicación cuantificables de forma automática y que deben incluirse en el archivo "C". La inclusión de cualquiera de estos datos en el archivo "B" supondrá la exclusión de la oferta al poner en juego la objetividad e imparcialidad del proceso.
"C" artxiboaren azpititulua hau izango da: **"PROPOSAMEN EKONOMIKOA".** Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak: Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen **V eranskineko** ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da. Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak "B" artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein "C" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekoak diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.	**El archivo "C"** se subtitulará **"PROPOSICIÓN ECONÓMICA"** y contendrá los siguientes documentos: Se incluirá la proposición económica relativa al criterio valorable en cifras o porcentajes al que se refiere el apartado 11.1. de este pliego. La proposición se ajustará al modelo establecido en el **anexo V** del presente Pliego. En ningún caso deben incluirse en el presente archivo datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor (no evaluable mediante fórmula) y que deberán incluirse en el archivo "B". La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo "C" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.
13.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA	**13.- CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**
Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxibo). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira. Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du zein enpresak betetzen dituzten plegu hauetan finkatutako hautaketa-irizpideak, eta espresuki adieraziko du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak. Dena dela, eskaintza	Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (archivo "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas determinados en este pliego, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo. En todo caso, dicha relación será leída

ekonomikoak jendaurreko egintzan irekitzen direnean irakurriko da guztien aurrean zerrenda hori. Egintza horretan, onartutako enpresa lizitatzaileen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da. Jarraian, "B" artxiboko edukia bulego teknikoko arduradunari emango zaio, formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezan. Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du. 8 Kontratazio-mahaiak, JENDAURREKO EGINTZAN elkartuta, enpresa lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. "C" artxiboa irekitzeko jendaurreko egintza Orioko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da. Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, "C" artxiboak udal teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Gero, Kontratazio-mahaiak kontratuaren adjudikazio proposamena aurkeztuko dio kontratazio organoari (Udalbatzarra).	públicamente en el acto de apertura pública de las ofertas económicas. En el acto no público se procederá a la apertura del archivo "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado. Posteriormente se remitirá el contenido de los archivos "B" para que la responsable de la oficina técnica, emita informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula. Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora. La Mesa de Contratación, reunida en ACTO PÚBLICO, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del Archivo "C" (Criterios cuantificables por fórmulas) y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas. El acto público de apertura de los archivos "C" se celebrará en el lugar y fechas indicados en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Orio. Si la Mesa de Contratación lo considera necesario acordará la remisión de los archivos "C" para que sean analizados por los técnicos municipales y emitan informe respecto de los criterios evaluables mediante fórmulas aritméticas. La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación al órgano de contratación (Pleno).
14.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA	**14.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO**
Eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere, bi	La adjudicación del contrato deberá dictarse en el plazo máximo de dos meses a

hilabeteko epean egingo da kontratuaren adjudikazioa. Epe hori igaro eta oraindik adjudikaziorik egin ez bada, lizitatzaileek eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute. Dena den, adjudikazioa nahitaez egin behar da, baldin eta aurkeztutako eskaintzaren batek administrazio baldintzen agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kasu horretan lizitazioa ezingo da hutsik laga. Edonola ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 152 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratazio-organoak, adjudikazioa egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla-eta; edota tramitatutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu. Kontratuaren adjudikazioak beti arrazoitua izan behar du, eta parte hartu dutenei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzaile-learen profilean ere argitaratuko da. Kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusita, eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa lizitatzaileari eskatuko zaio ondorengo zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkez ditzala, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita **hamar egun balioduneko epean**:	contar desde la apertura de las proposiciones. Transcurrido este plazo sin haberse producido la adjudicación, quienes liciten podrán retirar sus ofertas La adjudicación deberá dictarse en todo caso, siempre que alguna de las ofertas presentadas reúna los requisitos exigidos en el Pliego de cláusulas, no pudiendo en tal caso declararse desierta la licitación. No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, el Órgano de Contratación, antes de dictar la adjudicación, podrá renunciar a celebrar el contrato por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables. La adjudicación del contrato, que en todo caso deberá ser motivada, se notificará a quienes hayan participado en el procedimiento de licitación y, simultáneamente, se publicará en el perfil del contratante del órgano de contratación. A la vista de la propuesta de la Mesa de Contratación, se requerirá a la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del **plazo de diez días hábiles**, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación acreditativa de las siguientes circunstancias:
a) Lizitatzaileak bere izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala eta notario-ahalorde askietsia.	a) Documento Nacional de Identidad si la empresa licitadora actúa en nombre propio. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, Documento Nacional de Identidad, así como poder bastanteado.
b) Lizitatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze edo aldaketa eskritura aurkeztuko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin inskripzioa derrigorrezkoa bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legediaren arabera. Hala ez	b) Cuando el/la licitador/a sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si

bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorriz.	no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Cuando se trate de empresarios/as no españolas de Estados miembros de la Unión Europea, deberán acreditar su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.
c) Indarrean dauden xedapenek agindu bezala, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.	c) Certificaciones acreditativas de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.
d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizunpeko aitorpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela bajarik hartu.	d) Acreditación de estar dado de alta en el I.A.E., en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.
e) Enpresa lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala duela ziurtatu beharko du: e.1.) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkenengo hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 300.000 euro edo handiagokoa izan behar du. Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak edo Merkataritza	e) Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional de la empresa: e.1) Solvencia económica y financiera: Volumen anual de negocios, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 300.000 euros. El volumen anual de negocios de la empresa licitadora o candidata se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el

Erregistroan jasoak, egiaztatuko da eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuan bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek bere urteko negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute. e.2) Kaudimen teknikoa: **Azkeneko hiru urteetan eginiko zerbitzu nagusien zerrenda**, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz. Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriekin batera; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari. Gutxieneko baldintza izango da objektu berdina edo antzekoa eta urteko 150.000 euroko (BEZ gabe) fakturazioa duen kontratu bat burutu izana. *** Proiektua gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren giza-baliabideak:** Lizitatzaileek horniketa eta mantentze-lanen xede diren makinen fabrikatzaile edo banatzaile baimenduaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, edo, hala badagokio, lizitatzeko unean kontratuaren beharrei erantzuteko adina makina jabetzan dituela adierazten duen enpresaren erantzukizunpeko	Registro Mercantil, si la empresa estuviera inscrita en dicho Registro, y en caso contrario por las depositadas en el Registro Oficial en que deba estar inscrito. Las personas empresarias individuales no inscritas en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil. e.2.) Solvencia técnica: **Relación de los principales servicios realizados en los últimos tres años** que incluya importe, fechas y destinatarios públicos o privados de los mismos. Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público o, cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta de dicho certificado, mediante una declaración del empresario acompañado de los documentos obrantes en poder del mismo que acrediten la realización de la prestación; en su caso, estos certificados serán comunicados directamente al órgano de contratación por la autoridad competente. Será requisito mínimo haber realizado un contrato con el mismo o análogo objeto y con un importe de ejecución de al menos 150.000 euros (IVA excluido). *** Adscripción de medios materiales y personales:** Las licitadoras deberán presentar certificado del fabricante o distribuidor autorizado de las máquinas expendedoras objeto de suministro y mantenimiento; o, en su caso, declaración responsable de la empresa de tener en propiedad, en el

adierazpena, kontratua gauzatu bitartean mantendu beharreko elementuen stock berdina nahikotzat joz, Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguetan ezarritakoaren arabera.	momento de licitar, máquinas suficientes para atender las necesidades del contrato, considerando suficiente un stock de elementos igual al que se exige mantener durante la ejecución del contrato, según se estipula en los Pliegos de Prescripciones Técnicas Particulares.
f) Behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria.	f) Justificante de haber constituido la garantía definitiva.
g) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat 600.000 euroko estaldurarekin kontratatuta izatearen egiaztagiria, poliza eta dagokion ordainagiriaren bidez. Ondorio horietarako, polizak estaldura jasoko du, alderdi orokorrei dagokienez, ustiapenari, patronalari eta amaitutako lanei dagokienez, bai eta tokiko erantzukizunari dagokionez ere: aseguratu gisa sartuko dira kontratista, azpikontratista – hala badagokio – eta bere kargura esku hartzen duten langileak. h) VI. eranskina, datuen babesari buruzkoa Oharra: a), b), c), d) eta e) letretan adierazitako zirkunstantziak honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 84. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziek ez dutela inolako aldaketarik izan. Eskakizun horiek zehaztutako epean bete ez direlako, adjudikazioa egin ez bada, beste deialdi bat egin 10 aurretik,	g) Acreditación de tener contratada una póliza de seguro de Responsabilidad Civil por importe de 600.000 euros de cobertura, mediante póliza y recibo correspondiente. A los citados efectos, la póliza incluirá la cobertura en sus vertientes general, de explotación, patronal y de trabajos terminados, así como responsabilidad locativa: se incluirá como asegurado al contratista, el subcontratista -en su caso-, y al personal que intervenga a su cargo. h) Anexo VI de protección de datos Las circunstancias señaladas en las anteriores letras a), b), c) d) y e) podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o mediante un certificado comunitario de clasificación conforme a lo establecido en el art. 84 del TRLCSP En este caso, deberá acompañarse a la referida certificación una declaración responsable del licitador/a en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación. Cuando no proceda la adjudicación por no cumplir éste adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, antes de proceder a una nueva convocatoria la Administración podrá efectuar una nueva adjudicación al licitador o licitadores

adjudikazioa hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei adjudikatzeko aukera du Administrazioak, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hala egitea posible bada eta adjudikaziodun berria ados badago. Egoera horretan, hamar egun balioduneko epea irekiko da aipatu berri den guztia burutzeko. Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 152.2 artikuluan aurreikusten duenari jarraituz, kontratua egiten ez bada, edota adjudikazioaren aurretik kontratazio-organoak erabakitako prozedura honi uko egiten bazaio, Administrazioak zehaztuko du lizitatzaileei eragindako gastuaren zenbatekoa, aurretik haiekin egon eta justifikazioak entzun ondoren. Aurkeztutako eskaintzak, bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatakoak, bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren errekurtsoak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da. Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak erabaki dezake pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea. Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da. Administrazioaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, atzerapenak eragindako kalteordainak ordainduko zaizkio enpresa adjudikaziodunari.	siguientes a aquél, por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas, siempre que ello fuese posible y que la nueva empresa adjudicataria haya prestado su conformidad, en cuyo caso se concederá a éste un plazo de diez días hábiles para cumplimentar lo señalado anteriormente. Al amparo de lo previsto en el art. 152.2 de la LCSP, en caso de renuncia a la celebración del contrato o desistimiento de este procedimiento acordado por el órgano de contratación antes de la adjudicación, la compensación de los gastos que la licitación haya ocasionado a quienes hayan licitado será fijada por esta Administración previa audiencia y justificación de aquellos. Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los y las interesadas. 10 Transcurrido el plazo de 1 mes desde que dicha documentación quede a disposición de los y las interesadas, la Administración podrá disponer sobre la destrucción de la documentación aportada por las personas o empresas licitadoras cuando éstas no hayan procedido a su retirada. El contrato se formalizará en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, debiendo comparecer en el Ayuntamiento para ello. En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables a la Administración, se indemnizará a la empresa adjudicataria de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.
15.- KONTRATUA FORMALIZATZEA	**15.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da. SPKLren 44.1 artikuluaren arabera kontratazio arloan errekurtso berezia izan dezakeen kontratua denez, ezin izango da formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren berri emateko jakinarazpena igortzen zaienetik, eta, epe horretan, errekurtso hori jarri ahal izango dute. Errekurtsoa jarriz gero, kontratazio-prozeduraren izapidetzea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte; SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz bideratuko da errekurtsoa. Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, adjudikaziodunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost eguneko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.	El contrato se formalizará conforme a lo previsto en el artículo 153 de la LCSP en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, debiendo comparecer en el Ayuntamiento para ello. Tratándose de un contrato susceptible del recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44.1 de la LCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las licitadoras y candidatos/as, plazo durante el cual puede interponerse el citado recurso, en cuyo caso se suspenderá la tramitación del procedimiento de contratación hasta la resolución del recurso, que se desarrollará según lo previsto en el artículo 44 y siguientes de la citada Ley. Transcurridos los quince días señalados sin que se interponga recurso alguno, se requerirá a la adjudicataria para que formalice el contrato en un plazo no superior a cinco días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento.
III. KONTRATUA BETETZEA	**III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
16.- KONTRATUAREN ARDURADUNA	**16.- RESPONSABLE DEL CONTRATO**
Orioko **Udaltzainburua** izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.	En el presente contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 62 de la LCSP se designa como responsable de la ejecución del contrato a la Jefa de la Policía Municipal del ayuntamiento de Orio.
17.- KONTRATUA BETETZEA	**17.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua enpresa adjudikaziodunaren gain eta kontura beteko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontratua betetzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta, halakorik balego, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa adjudicataria, con arreglo al artículo 197 de la LCSP. El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y, en su caso, a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien

Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek. Enpresa adjudikaziodunari edo bere mendeko pertsonei leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo ezegiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake. Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikusItako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du. Kontratuaren xede dena gaizki betetzen deneko kasuetan kontratazio organoak zehapenak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan, kontratuaren adjudikazio prezioaren %1etik %10 era bitartean. Zehapen horiek kontratazio-organoak ezarriko ditu, enpresa kontratistari eta, hala badagokio, abal-emaileari entzunaldia emateko behar den espedientea tramitatu ondoren.	ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente. Cuando por actos u omisiones imputables a la empresa adjudicataria o a personas de ella dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo. Cuando la empresa contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades previstas en los artículos 192 y 193 de la LCSP En el caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato, el órgano de contratación podrá imponer penalidades, en proporción a la gravedad, por importe entre 1% y el 10% del precio de adjudicación del contrato. Estas penalidades se impondrán por el órgano de contratación, previa tramitación del oportuno expediente en que se dará audiencia a la empresa contratista, y en su caso, al avalista.
18.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK	**18.- CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN**
18.1. Hizkuntza arloan Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua. Arau horien artean daude, besteak beste, Orioko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantza eta erabilera-planaren baitan Orioko Udalak onartutako hizkuntza-irizpideak.	**18.1. En materia lingüística** Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre las que están la ordenanza municipal para la normalización del uso del euskera y los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Orio en el marco del plan de uso del euskera.

9/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa arautzen duenak, 13. 1. b) artikuluan, zehazten da: k*ontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa.*	El DECRETO 9/2024, de 22 de febrero, por el que se regula el uso del euskera en el Sector Público Vasco, en el artículo 13 1. b) se especifica que e*n el caso de que el procedimiento de contratación tenga por objeto una prestación dirigida o en cuya ejecución se establezca una relación directa con la ciudadanía, los ciudadanos y ciudadanas serán atendidos en la lengua oficial que elijan y, además, la prestación se ejecutará en condiciones que garanticen los derechos lingüísticos de los ciudadanos y ciudadanas destinatarias de la misma..*
Enpresa adjudikaziodunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; era berean, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harreman guztiak administrazioaren lan-hizkuntzan izango dira; hau da, euskaraz.	La empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Asimismo, todas las relaciones tanto verbales como escritas de la empresa con la administración serán en la lengua de trabajo de ésta última; es decir, en euskara.
Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, zerbitzua emango duten enpresa adjudikazioduneko langileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 eta B2 gaitasun-maila izan beharko dute, Preskripzio teknikoen agiriarekin bat etorrita. Baldintza hori berdin aplikatuko zaie zerbitzurako egiten diren lan-kontratu berri guztiei.	Las características específicas de la prestación objeto del contrato obligan a que el personal adscrito al servicio deberá estar en posesión del nivel de competencia C1 y B2 del Marco Europeo de Referencia, según lo dispuesto en el Pliego de Prescripciones Técnicas. Dicha condición será aplicable también a las nuevas contrataciones que pudieran realizarse para la prestación del servicio.
